

LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN POLITIKA

Pertsonak dira erakundearen oinarritzko eta funtsezko elementu. Prebentziorako mekanismoak direla medio pertsonen osasuna eta ongizatea bermatzea enpresaren betebeharrak saihestezina da eta horretara bideratu behar du beharrezkoak diren ahalegin eta baliabide guztiak arrisku larriak desagerrarazteko eta arriskuak gutxitzeko.

Dena dela, ITELAZPIk arlo honi ematen dion balio estrategiko eta lehentasunezkoa ez da mugatzen erakundeko langileetara, gure enpresa-esparruan diharduten pertsona guztietara zabaltzen baita, alegia, azpikontratatu, hornitzaile, ostatatu eta abarretara. Zabaltze-lan handia egin dugu horiekin, gure enpresaren konpromisoarekin bat egin dezaten.

ITELAZPIk irmo eusten dio bere kudeaketa-sisteman lan arriskuen prebentzioa modu eraginkorrean integratzeko konpromisoari. Zentzu honetan, prebentziorako politika ezartzea Zuzendaritzaren ardura den arren, horren konpromisoa harantzago doa, hain zuzen ere, erakundeko pertsona guztietara eta bertako prozesu guztietara. Hori gauzatzeko egingo dugu lan, baita horrek berekin dakartzan balioak zabaltzeko ere, nork bere zuzeneko eragin-eremuaren baitan.

Gure erakundeko pertsona guztiek dute beraiengan eragina izan dezaketen arriskuen inguruko informazio osoa. Horiei aurre egiteko eta beren funtzioak segurtasunez betetzeko prestakuntza zehatza eta beharrezko bitartekoak jasotzen dituzte. ITELAZPIk konpromisoa hartzen du lan baldintza seguruak eta osasungarriak emateko, lesioak zein lanbidearekin harremanak izan dezaketen osasun kalteak aurreikusteko helburuarekin, hori guztia gure helburu, neurri, testuinguru, arrisku zein aukeren nortasunekin bat eginik. Horretaz gain, gure instalazioetan lan egiten duten erakundeek ere arriskuei eta kasuan kasu hartu beharreko neurriei buruzko beharrezko informazioa dute. Hartara, segurtasun-giroan egin ahal izango dituzte beren zereginak.

Laneko segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten gai guztietan erakundeko gainerako pertsonen partaidetza eta kontsulta sustatu nahi du Zuzendaritzak. Hori dela eta, guztion parte-hartzeari eta kudeaketa mekanismoari eman nahi die bide esparru honetan.

Arlo honetan erakundeak hartutako konpromisoa ez da mugatzen aplikagarri diren legezko betebeharrak betetzera. Aitzitik, gure kontestuari dagozkion bestelako konpromiso zehatzak ere betetzen ditugu; etengabeko hobekuntzaren inguruko konpromisoan oinarrituta.

ISO 45001 eskatzen dituen betebeharrak jarraituz, gure kudeaketa eredua arau honetara egokitzea beharrezkoa dugu.

Zamudion, 2019ko irailaren 30ean.



Sin.: Miren Matxalen Laurizika Jauregi
Zuzendari Nagusia



POLÍTICA DE SEGURIDAD Y SALUD EN EL TRABAJO

Las personas constituyen el elemento básico y fundamental de la organización. Garantizar la salud y el bienestar de las personas, articulando mecanismos para eliminar los peligros y reducir los riesgos, es una obligación inexcusable de la empresa, que debe actuar, sin escatimar esfuerzos.

El valor estratégico y primordial que esta materia tiene para ITELAZPI no alcanza únicamente al personal de la organización, sino que se extiende a todas aquellas personas que actúan en nuestro ámbito empresarial: subcontratas, proveedores, albergados, etc., sobre los que desarrollamos una intensa tarea de difusión buscando la compartición del compromiso de nuestra empresa.

Es compromiso firme de ITELAZPI integrar de manera eficaz la prevención de riesgos laborales en su sistema de gestión. En este sentido, siendo responsabilidad de la Dirección la implantación de la Política de Seguridad y Salud en el Trabajo, el compromiso con la misma se extiende al conjunto de las personas de la organización, así como a los procesos, que trabajarán de manera activa en la materialización de la misma y en la difusión de los valores que entraña, cada una dentro de su ámbito de influencia directa.

Las personas que integran nuestra organización disponen de toda la información relativa a los riesgos a los que se encuentran expuestas, reciben la formación precisa y los medios necesarios para actuar frente a aquellos y desempeñar su función de manera segura. Adquiriendo ITELAZPI un compromiso de proporcionarles condiciones de trabajo seguras y saludables para la prevención de lesiones y deterioro de la salud relacionados con el trabajo en línea con nuestro propósito, tamaño, contexto y la naturaleza de nuestros riesgos y oportunidades.

Asimismo, las organizaciones que actúan en nuestras instalaciones disponen también de la información necesaria sobre los riesgos y las medidas a adoptar en cada caso, de manera que el desarrollo de sus tareas se produzca en un clima de seguridad.

Desde la Dirección se potencia la participación y consulta del personal en todas las cuestiones que afectan a la seguridad y salud en el trabajo, abriendo el proceso y proporcionando mecanismos para gestionarlo.

El compromiso de la organización en esta materia no se limita al cumplimiento de las obligaciones legales aplicables, sino que también cumplimos otros compromisos específicos pertinentes a nuestro contexto; sustentándose este compromiso en la mejora continua.

En cumplimiento de los requisitos que marca la ISO 45001, debemos ajustar nuestro modelo de gestión a las exigencias de la citada norma.

En Zamudio, a 30 de septiembre 2019.



Fdo. Miren Matxalen Lauzirika Jauregi
Directora General

